

# GORUA ETA ARDATZA

## 1- ZER DIRA PIEZA HAUEK?

Alde batetik gorua dugu, eta bestetik, ardatza. Biak zuntzen irute prozesuan erabiltzen ziren piezak dira, horretarako lihoa, kalamua zein artilea erabiliz.

Goruari dagokionez, ikus daiteke zurez eginiko makil batez osatzen dela, zeinak muturrean hari zuntzez osatutako matazak jartzeko lekua duen. Hauek eusteko kartoiez eta oihalkiak elkar josiz eginiko txanoa erabil zitekeen, gure kasuan gorri, hori eta marroi kolore biziak dituena. Noiz egin zuten ez dakigun arren, badakigu Salaberri Baserritik (Aniz, Baztan, Nafarro) iritsi zela Gordailura, eta gaur egun Goruzaleok bildumaren zati dela.



*Iturria: Gordailua.*

Ardatzak, berriz, jatorri gipuzkoarra du, Errenteria, eta bilduma berekoa da. Zurez egindako makil luze eta zilindrikoa da, zeina alde batean zorroztu egiten den eta

beste aldean (normalean zatirik lodienean, beheko aldean) kontrapisu edo topeko pieza bat daraman.



*Iturria: Gordailua.*

Bi tresnen helburua zuntza indibidualak hari bakar eta maneigarri batean bihurtzea da. Horretarako, gorua ezkerreko eskuaz hartu edota gerri gainean jartzen da eta eskuin eskuarekin muturrean jartzen den matazatik hari-zuntz multzo txikiak ateratzen joango da irulea. Hatzak listuz bustiko ditu, eta hari-zuntzak atera ahala hatz lodia eta erakuslearekin haria kiribiltzen joango da. Aldi berean, hasierako hari hau ardatzaren oinarrira lotzen zen eta bere horretan bueltak ematean ardatzak, lihoaren edota artilearen zuntzak kiribiltzen joango dira. Eskuin eskuarekin ardatza biratuz joango da irulea, haria ardatzean biltzen doan heinean.

## **2- HARI-ZUNTZEN LANKETA PROZESUKO ZEIN PAUSOTAN ERABILTZEN DIRA?**

Gorua eta ardatza, lehen aipatu bezala, bai lihoarekin eta baita artilearekin ere erabil daitezke, eta horrelaxe egiten zuten garai batean Gipuzkoako baserritar eta

artzainek. Bi zuntz hauen lanketak baditu bere berezitasunak, nahiz eta askotan tresnak eta teknikak berdinak izan.

## Lihoaren lanketa prozesua:

Lihoarekin hasiko gara lehendabizi. Landare hau Neolitikotik lantzen da Europan eta Gipuzkoari dagokionez, XV. mendetik aurrera izan zuen garapen handiena. Bere lanketa prozesua luzea eta nekeza da, hala dio esaera zaharrak: *linuaren atsekabeak*, *amaigabeak*. XX. mendeaz geroztik, industrializazioaren ondorioz eta batez ere algodoiez egindako oihal berrien etorrerarekin, bere erabilpenak beherakada itzela izan zuen.

Goazen ba, liho lanketaren nondik norakoak zehaztera. Uzta jasotakoan, karrama erabiliz hazia kentzen zitzaion, ondoren liho-putzuetara eraman behar izaten zen eta uretan murgildurik utzi, 10-20 bat egunez. Honek biguntasuna ematen zion landareari, jarraian berriz ere uretatik atera eta zelaietan lehortzen uzteko. Behin guztiz lehor zegoela, hurrengo pausoa liho-jotzea zen, mazona edo tranga erabiliz lihoaren azala kraskatu eta barneko zuntzak ateratzeko. Lihoak oraindik ere lasto asko izaten zuenez, karrakatzeko ezpata-oina erabiltzen zen, hobeto garbitzeko.

Ondoren datozen lanak, artilearekin egingo direnen antzekoak dira. Lihoaren zuntzak kardatu egin behar izaten ziren txarrantxarekin eta soilik orduan has zitekeen haria iruten, gorua eta ardatza erabiliz, lehen azaldu dugun moduan. Behin haria lortuta, matazak egiten ziren eta hauek ur bero eta errautsekin garbitu behar izaten ziren. Azken pausoa harilkaria erabiliz harilkatuak egitea zen, ondoren hauek ehungailuetan erabili ahal izateko.



*Iturria: Atlas Etnográfico de Vasconia.*

Laburbilduz, ondorengo hauek dira lihoaren landaretik oihala lortzeraino eman beharreko pauso nagusiak (webgunean dugun [sarrera honetan](#) informazio gehiago aurkituko duzue):

- Haziak erain eta prest dagoenean uzta bildu.
- Hazia landaretik kendu edo bereizi.
- Landarea beratu.
- Lihoa jo.
- Lastoa kendu.
- Kardatu.
- Gorua eta ardatza erabiliz ardatza irun.
- Matazak egin.
- Matazak lixibaz garbitu.
- Harilkatuak egin.
- Ehungailuan oihalak ehundu.

## Artilearen lanketa prozesua:

Artilearen lanketak baditu hainbat desberdintasun. Lehendabiziko lana, noski, ardiari artilea moztea da. Ondoren artile hau hartu eta garbitu egin behar da zikinkeria eta hondakin organiko guztiak kentzeko. Uretan sartuta egiten zen hau, batzuetan ur hotzetan soilik, eta besteetan aurretiaz ur berotan ere murgilduz. Behin garbituta, nonbaiten eskegi edo azalera laul baten gainean jarri eta lehortzen utzi beharra dago.

Lehorra dagoenean, artilea luzatu eta banandu egiten da, ireki nolabait, pixkanaka eta kontu handiz eskuekin zuntzak bananduz. Kardatu ere egin beharra dago, horretarako eskuila itxurako kardez baliatuz. Prozesu hau behin eta berriz errepikatzen da artileak ehundura leunagoa izan arte.

Aurretiazko lan hauek bukatuta, orain bai, haria iruten hasi gaitezke, hau da, zuntzei hari itxura ematen. Ehule batzuek gorua eta ardatza erabiltzen zituzten zeregin honetarako, baina besteek, artzaiek batez ere, ardatzaz soilik baliatzen ziren haria iruteko. Besazpian edota eskumuturrean bildurik ipintzen zuten artile maluta, eta hortik, haria iruten hasten ziren: ezker eskuko hatzez hari-zuntzak ateratzen joaten ziren artile malutatik, eta aldi bereab, eskuin eskuko hatzekin zuntz hauek kiribiltzen zituzten, ardatzari bueltak ematen zizkieten bitartean. Modu honetan, pixkanana gustuko lodierako haria lortzen zuten.



*Iturria: Atlas Etnográfico de Vasconia.*

Lortutako hariarekin mataza desberdinak egiten ziren eta hauek, tindaturik edo modu naturalean, ehungailuetan erabiltzen ziren, azkenik oihalak lortuz.

Motzean esanda, hauek dira jarraitu beharreko pausoak:

- Ardiei artilea moztu.
- Artilea garbitu.
- Artilearen zuntzak eskuz banandu.
- Artilea irun.
- Matazak egin.
- Tindatu (aukeran).
- Ehungailuan erabili.

### 3- NORK ETA NOIZ ERABILTZEN ZITUEN?

Lihoaren atzean emakumea dago, emakumearen lana izaten zen: lihoa ereiteaz, zaintzeaz, uzta jasotzeaz, iruteaz eta oihalak egiteaz arduratzen ziren emakumeak. Normalean etxeko sukaldean, atarian zein ganbaran biltzen ziren emakumeak irutera, nahiz eta izatez, edozein lekutan irun daitekeen: zutik, eserita edota abilezia izanez gero, oinez ere.

Familia ahaldunek, noski, kanpotik ekarritako oihal eta jantziak erabiltzen zituzten, baina nekazariak, berriz, eurek prestatu behar izaten zituzten, lihoa edota artilea erabiliz. Neskak oso gaztetatik hasten ziren lihoaren lanak ikasten, gutxi gorabehera 10 urte zituztela jasotzen zuten beharrezko ezagutza guztia. Transmisio honen arduradurak euren amak eta amonak izaten ziren, beraiek erakusten zieten belaunaldi berriei lihoa iruten. Modu honetan, neska gazte bakoitzak baratzeko zati bat edo lur soro bat gordetzen zuten lihoarentzat, pixkanaka arrea prestatu ahal izateko. Bestela ere, bizitza guztian egiten zuten jarduera bat zen oihalak egitearena.

Irute lanak neguko iluntzeetan egiten ziren. Etxeko labore guztiak bete ondoren geratzen zitzaien denbora baliatzen zuten zeregin hauetarako. Nahiz eta bakarka egiten zen lan bat izan, hau da, nahiz eta emakume bakoitzak bere tresnak erabili eta bere haria irun, ohikoa zen emakume taldeak iluntzetan biltzea. Sozializarioako aitzakia ere bazen, landa eremuko auzogune edo herrietako bizitza soziala markatzen zuen osagaietako bat baitzen harigintza. Bale olioarekin piztutako kriseiluen argipean bildutako emakumeak tertulian igarotzen zuten gaubela, zeinak askotan gaztainak eta esne beroa hartuz alaitzen zituzten.

Lihoaren hazia portu, hiribildu, auzo eta baserrietara iritsi bezain pronto, emakumezkoak ziren prozesu guztiaren arduradun. Hauetako batzuek lihoaren inguruan osatu zuten euren lan-bizitza, hala nola bizitza soziala eta ekonomikoa. Emakumeak gizonezkoen itzalpean bizi ziren garai hartan, presentzia juridikorik gabe, lihoaren negozioak nolabaiteko askatasuna eman zien emakume ezkongabeei, gizonezkoen baimenik gabe jarduten baitzuten.

Orain arte lihoaz eta emakumez aritu izan bagara ere, gorua eta ardatza artilea iruteko erabil daitezke. Hemen, halaber, badira hainbat desberdintasun. Artilea leku askotan gizokezkoek lantzen zuten materiala zen, bereziki artzaiek, artaldea zaintzen zuten bitartean izaten zuten denbora luze horretan. Hauek, lihoa iruten zuten emakumeek ez bezela, ardatzaz soilik baliatzen ziren artilea iruteko, gorua erabili gabe. Herri askotan, XX. mendeaz geroztik hasi ziren emakumezkoak ere artilea iruten.

#### **4- NONDIK DATOZTE ETA NOIZTIK ERABILTZEN DITUGU EUSKAL HERRIAN?**

Gorua jatorria zehatz mehatz kokatzen ez dakigun arren, datuek diote Txinan agertu zela K. a. 3000. urte inguruan, zetaren lanketarekin loturik. Gipuzkoan, gorua eta ardatza erabili izan dira tradizionalki: batzuetan biak batera, besteetan soilik ardatza, nork eta zein zuntzekin erabiltzen zuen arabera.

XVIII. mendean jada, tornua erabiltzen hasi ziren Euskal Herriko baserritar ugari, ehundegiko anezka-ziriak kargatzeko.



Iturria: Gordailua.

Halako tornuak Indian ageri zaizkigu lehendabizi, K. a. 500. urte inguruan, baina hauek Europara XIII-XIV. mendeen artean iritsi ziren. XVIII. mende amaieran hasi zen Industria Iraultzara arte tornuak eta eskuzko irute prozesuak konbinatu zituzten, baina beste hainbat sektoreekin gertatu zen bezalaxe, Industria Iraultzak ere izan zuen eragina oihalgintza sektorean, batez ere erabilera komertziala zuten oihalen kasuan. Irute prozesuan erabiltzen ziren tresnak hobetuz joan ziren, prozesuak mekanizatu ziren, eta orokorrean produkzioak azkartu eta handitu egin ziren.

Industria Iraultza baina mende batzuk lehenago, ordea, Leonardo de Vinci, gauza askoren artean asmatzailea, oihalgintzari lotutako prozesuetako hainbat fase automatizatzen saiatu zen, giza lan-karga arintzeko eta baita ere ekoizpena handitzeko. Haria iruteko eta oihalak ehuntzeko irtenbideak diseinatu zituen, zeinak batzuetan 250 urte beranduago sortuko ziren makinen aitzindari gisa har daitezkeen. Hauen kasua da lau ardatzez osatutako iruteko makina edota ehungailu automatikoa.



XIX. mendean Industria Iraultzaren baitan asmakuntzarik handiena Spinning Jenny deiturikoa izan zen, 1764an James Hargreaves-ek Erresuma Batuan sorturiko iruteko makina. Honen abantaila edo aurrerapen nagusia aldi berean hainbat hari irun ditzakela da, modu honetan irute lanak erraztuz eta azkartuz.



Iturria: Britannica.

Denborarekin berrikuntza gehiago sortu ziren oihalgintzaren inguruan: 1769an Richard Arkwright-ek patentatutako ehungailu hidraulikoa (*water-frame*) edota Samuel Crompton-ek patentatutako (*spinning mule*). Etxeko oihalgintzari dagokionean, josteko makina izan daiteke asmakuntzarik esanguratsuenetakoa, 1790an Thomas Saint-ek sortua baina 1851an Isaac M. Singerrek patentatua. Pixkanaka, familia ugari halako makinak erosteari ekin zioten, bere erabilera errazagatik aproposa baitzen etxean izatea.

Gipuzkoako landa eremuetako baserrietan, ordea, oihalen prestaketa eta erabilera etxerako zen lekuetan, eraldaketa hauek ez ziren XIX. mende amaiera eta XX. mende hasierara arte antzeman. Bertako emakumeek teknika tradizionalei eutsi zieten, pixkanaka iraultza honen eragina iritsi eta lihogintza eta artilegintza abandonatuz joan ziren arte, algodoiez eginiko oihalen inportazioaren mesederako.

## 5- NOLAKO OIHALAK EGITEN ZIREN LIHO ETA ARTILEAREKIN?

Baserrietan lihoz sortutako oihalak ziren ohikoenak, bai jantzietarako, bai logela zein sukalderako: maindireak, doselak, kortinak, eskuoihalak, mukizapiak, alkandorak, gonak, azpiko arropa... Oihal fina da lihoz egindakoa, eta geroz eta gehiago erabili eta garbitu, orduan eta leunagoa bihurtzen da. Artilea ere erabiltzen zen, neurri txikiagoan, ondorengoak egiteko: mantak, txaketak, galtzak, galtzerdiak, jertseak, txalekoak...

Garai hartan gizarteko hainbat emakumek burua estalirik eramateko betebeharra zuten. Hau zen emakume ezkondu, serora eta monjen kasua, neskek eta dontzeilek burua aske eraman zezaketen bitartean. Beaita izenez ezagutzen ditugu lihoz egindako buruko hauek, adar-formakoak, zeinak askotan Elizarekin liskarrak ekarri baitzituen, bere ustezko sinbologia falikoagatik.

Burua beatilekin estaltzearen ohitura hau penintsulako beste lurraldeetara zabaldu zen, eta horrela izugarritzko merkatua sortu zen buruko hauen inguruan. Gehienak salmentara bideratuta egiten ziren, merkatarietara saldu eta penintsulan zehar sakabanatuz: Valentzia, Sevilla, Toledo edo Medina del Campo ziren helmuga nagusiak. Lehen aipatu bezala, emakumea zegoen merkatu honen buruan: berak sortzen zituen beatilak, berak zuen merkatarietara negoziatu beharra eta berak borrokatu behar izaten zuen gizonez gailendutako ekonomia batean.

Aipatutako etxeko arrea osatzen zuten piezez gain, arreo liturgikoa ere lihoz osatzen zen. Alde batetik, hileta-errituetan elizan beharrezkoak ziren oihalak: abadeen arropak, altareak estaltzeko zamuak, eliz-zapiak eta ogi-eskaintzak egiten zirenean hauen otarrea estaltzeko oihalak. Bestetik, gorpuarekin lotutako oihalak: hil-oihalak edo izerkariak eta hil-jantziak, besteak beste. Hauek hildako senidea biltzeko, estaltzeko eta lurperatzeko erabiltzen ziren. Hileta-errituekin loturiko oihalak ziren apaindurei eta irunari dagokionez aberatsenak, kolore desberdinetako hariez gurutze-puntuan bordatuz.

Beraz, ikus daiteke nola lihoak emakumeen bizitza markatzen zuen, gaztarotik hasi, ezkontza errituak igaro eta heriotzara arte (eta heriotza ondoren ere). Hainbestekoa izan zen lihoaren garrantzia emakumezkoen bizitzan, non hilerri batzuetan iruteko tresnak ageri diren atributo edo apaingarri gisa emakumezkoen hilarrietan.

## 6- BIBLIOGRAFIA

- Ayuso Sánchez, C. (2009). El mundo laboral femenino en el País Vasco Medieval. *Sancho el Sabio: Euskal Ikerketa Aldizkaria*. 30. bolumena. 115-135.
- Etniker Euskalerrria. (2000). *Atlas etnográfico de Vasconia: Ganadería y pastoreo en Vasconia*. 11. bolumena. Bizkaia: Labayru Fundazioa.
- Etniker Euskalerrria (2017). *Atlas etnográfico de Vasconia: Agricultura en Vasconia*. 12. bolumena. Bizkaia: Labayru Fundazioa.
- Euskonews & Media. (2024ko abuztuaren 27an). *El lino vasco, una historia a recuperar*. <https://www.euskonews.eus/0377zbn/gaia37701es.html>
- Garmendia, P. (1936). Trajes vascos del siglo XVI. *Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkaria*. 27. bolumena. 1. zk. 126-133. orr.
- Igartubeiti Baserri Museoa. (2024ko abuztuaren 22a). *Lihoa lantzen*: <https://www.igartubeitibaserria.eus/eu/artxibo-digitala/erakusketa-birtualak/lihoa-lantzen-1>
- Igartubeiti Baserri Museoa. (2024ko abuztuaren 22a). *Lihoaren eta euskal emakumeen historia ezkutua*: <https://www.igartubeitibaserria.eus/eu/programa/egitasmoak/laneko-kultura/lihoa-lantzen-zikloa/lihoaren-eta-euskal-emakumeen-historia-ekutua>
- Larratzu Taldea (1984). Liho eta artile lanak Diman. *KOBIE: Zientzietako Aldizkaria*. 1. zk. 213-266 orr.
- Museo Leonardiano di Vinci. (2024ko irailaren 17). *Leonardo y el arte de tejer*. <https://artsandculture.google.com/story/2wVxLwuL6F11KQ?hl=es-419>

- Museotik (2024ko irailaren 17). *Hil-oihala San Telmo Museoa:*  
<https://museotik.euskadi.eus/bilduma/-/izenburua-hil-oihala/objetua-hil-oihala/museotik-ca-128185/>
- Universidad de Burgos (2024ko abuztuaren 22a). *Historia de los textiles:*  
<https://historiamateriales.ubuinvestiga.es/textiles/#Punto-6>
- Urte Sasoiak (2024ko irailaren 3an). *Linuaren penak eta nekeak:*  
[https://urtesasoiak.com/?page\\_id=1606](https://urtesasoiak.com/?page_id=1606)